

## Bigarren helburua: gosea ezabatzea, benetan bilatzen ez den helburua

(Goal two: End hunger, a goal that is not really being looking for)

Efren Areskurrinaga Mirandona\*

Ekonomia Aplikatua Saila, UPV/EHU, Bilbo

**LABURPENA:** Gaur egun, oraindik ere milioika pertsona gose da munduan, elikagaien ekoizpena asko handitu eta populazioaren igoeraren gainera hazi bada ere. 768 milioi pertsona azpielikaturen arazoa merkatuetan dauden elikagai horiek eskuratzeko nahiko errenta ez izatean datza finean, ez elikagai faltan. Izan ere, globalizazio-prozesu neoliberalak elikadurere du industrial globalizatuaren aldeko bide sendoak eraiki ditu azken hamarkada hauetan. Baina, elikadura-sistema globala eratzearekin batera, nekazaritzaren produktzioaren ereduak aldatu dira, jarduera modernizatzekeo ustezko behararen izenean. Eremu globalaren dinamikak eta nekazaritza-politiken erabakiek eragin itzela izan dute tokiko baserriarregan eta elikadura-sistemen joeretan, eta argi-itzalak sortu dituzte haien garapenean. Itzalak hizpidera ekarriz, hainbat herrialde eta milioika pertsonaren elikadura-ziurgabetasuna areagotu dute, baita gosea nabarmen hedatu ere munduko biztanlerian. Elikadura-sistema global horren egungo joerak mantentzen badira, ezinezkoa izango da Garapen Iraunkorrerako Bigarren Helburua betetzea, hau da, gosea eta beste nutrizio-gabezia batzuk amaitzea, ez 2030. urterako, horixe baita hartutako konpromisoaren epemuga, ezta aurreragorako ere. Egoera larri hori iraultzeko, egungo ekonomia-politika liberalizatzaileak elikaduraren eta nekazaritzaren sistemetatik eta haien gaineko politiketatik alboratu behar dira, eta nekazaritzan oinarritutako elikadura- eta nekazaritza-sistema iraunkorrak sortu, herrialdeen burujabetza eta elikagaien elikadura-funtzioa berreskuratuz, mozkin-iturrietatik haratago.

**HITZ GAKOAK:** 2. GIHa, gosea, azpielikadura, elikadura-sistemak, ekonomiaren liberalizazioa, elikadura-mendekotasuna, elikadura-ziurgabetasuna.

**ABSTRACT:** Millions of people are still hungry around the world, though food production has increased greatly and has increased beyond population. The problem with the 768 million people who are currently undernourished is that they don't have enough income to get food in the markets, not that there is lack food. In fact, the neoliberal process of globalization has built strong approaches to the globalized industrial model of food over the past few decades. But along with the formation of the global food system, there have also been modelling changes in the production of agriculture in the name of modernization of this activity. The dynamics of the global arena and all these agricultural policies have affected local farmers and the tendencies of food systems, creating shadows in their development. In this sense, they have increased the food uncertainty of several countries and millions of people, spreading hunger among the world's population. If the current trends of this global food system are maintained, it will be impossible to fulfil the second of the sustainable development goals, namely ending hunger and other nutritional deficiencies, not by 2030, the year expected for it, but even later. To overcome this dramatic situation, the current economic liberalizing policies must be removed from the food and agriculture systems, and sustainable farming and agriculture systems based on the country's food sovereignty should be promoted, regaining food's social function of feeding people, far from its condition of a mere market good for making profit.

**KEYWORDS:** SDG2, hunger, undernourishment, food systems, economic liberalization, food dependence, food insecurity.

\* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Efren Areskurrinaga Mirandona, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea, Agirre lehendakaria, 83 (48015 Bilbo, Espainia). – [efren.areskurrinaga@ehu.eus](mailto:efren.areskurrinaga@ehu.eus) – <https://orcid.org/0000-0003-3352-8699>.

**Nola aipatu / How to cite:** Areskurrinaga Mirandona, Efren (2021). «Bigarren helburua: gosea ezabatzea, benetan bilatzen ez den helburua»; *Ekaia*, ale berezia 2021, 31-51. (<https://doi.org/10.1387/ekaia.22112>).

Jasotze-data: 2020, urriak 15; Onartze-data: 2021, urriak 18

ISSN 0214-9001 - eISSN 2444-3255 / © 2021 UPV/EHU



Lan hau Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa lizentzia baten mende dago

## 1. SARRERA

Goseak pertsonengan eragindako sufrimendua amaitzea gauzatu gabeko erronka bat da aspalditik, bereziki aro garaikidean bi mundu-gerren osteko nazioarteko herrialdeetan lankidetzan oinarrituta ezarri zen antolamenduari dagokionez, —arlotan politikoan— Nazio Batuen Erakundearen (NBE) sorrerari esker eta —maila ekonomikoan— Bretton Woods-eko antolamenduari esker. Deskolonizazio-prozesutik herrialde independente izatera igarotako kolonia eta lurralde txiroetako atzerapena, gabeziak eta gosea gairatzeko «garapena» lortu behar zela zioen diru-emaileen komunitateak 1950eko eta 1960ko hamarkadetan, eta garai hartan herrialde industrializatuak lortzen ari ziren bizi-maila on bera lortuko zutela haiek ere garatutakoan, garapena ulertuz betiere ekonomia-jardueraren oinarriaren hazkunde gisa, buru bakoitzeko barne-produktu gordinarean (BPG) hazkundera laburbilduta. Lortzear zegoen garapenaren bidea, industrializazioa eta manufakturen produkzioaren hazkundera ziren. Helburu horiek lortzeko, nazioarteko komunitatearen laguntza, garapenerako nazioarteko lankidetzara jasoko zuten, NBEren programa eta agentzia espezializatuen laguntza edo herrialde garatuaren aldeko lankidetzaren bidez [1].

Lankidetzara esparru-horretan, toki esanguratsua izan dute nekazaritzak eta elikadurak hasieratik. Ildo horretatik, 1945ean, Nazio Batuen Elikadura eta Nekazaritzarako Erakundea (Food and Agriculture Organization, FAO) sortu zen. Sorreratik, erakundearen helburua honako hau izan da: «Herrien nutrizio- eta bizi-mailak handitzea, ekoizpenaren errendimendua eta nekazaritzako elikagai eta produktu guztien banaketaren eraginkortasuna hobetzea, landa-biztanleriaren baldintzak hobetzea eta, horrela, munduko ekonomia hedatzen eta gizateria gosetik askatzen laguntzea» [2]. Asmo horrekin bat egin zuten 1960ko hamarkadan sustatutako iraultza berdeak eta halako ekoizpen-prozesuen bultzadak, ekoizpena handitu eta gosea amaitzeko.

Errealitatea, ordea, ez da izan horren oparoa, ez bizi-maila orokorra hazkunde ekonomikoaren bidez hedatzeari dagokionez, ez pobrezia eta hari lotutako gabezia mota guztiak desagertzeari dagokionez, ez eta bizitzarako ezinbestekoa den elikadura-beharrak asetzeari dagokionez ere, goseak eta azpielikadurak munduan eta bereziki garapen bidean diren herrialdeetan egun ere duten hedapen zabalak argi erakusten duen bezala, bai pandemia aurretik, bai ondoren ere. Izan ere, 2020an, 768 milioi pertsona zeuden goseak jota munduan. Azken urteetako joera gorakorra mantendu eta pandemiaren eraginez nabarmen areagotu denez, ehun bat milioi pertsona igo da kopurua 2019. eta 2020. urteetan, batez besteko kalkuluen arabera [18].

Ikusita nolako aurrerabide itzela ezagutu duen munduak xx. mendean zehar ondasun materialen eskuragarritasunean eta baita elikagaien ekoizpenean ere (ekoizpena hirukoiztu egin da, eta beti hazi da populazioa baino gehiago, 1961etik 2018ra), nekez ulertzen da pobrezia eta gosearen he-

dapen zabalaren iraupena. Horregatik, 1990eko hamarkadan, pobreziaren eta gosearen aurkako estrategia eta konpromiso zabalagoak eta zehatza-  
goak hartzeari ekin zion nazioarteko komunitateak; hala, 1996an, Elikadu-  
raren Munduko Gailurrean, Munduko Bankuari eman zitzaion pobreziaren  
kontrako borrokaren gidaritza, eta FAOri gosearen kontrako borrokaren ar-  
dura. Asmo horiek 2000. urtean Nazio Batuen Biltzarrak onartutako Milur-  
tekoko Garapen Helburuen harira gauzatu ziren, jomuga eta helmuga zeha-  
tzak harturik konpromiso gisa [4].

Pobreziaren eta gosearen esparruan, 1990. urtea hartu zen erreferen-  
tzia-urte gisa, eta 1990ean zeuden pertsona pobre eta goseen kopurua eta  
beren gizarteetan zeukaten pisua 2000tik 2015era bitartean erdira murriz-  
teko konpromisoa hartu zen. Agenda hori gauzatzeko, baina, ez zuten be-  
rriazko baliabide ekonomikorik ipini. Herrialdeen borondatearen arabe-  
rako eta Nazio Batuen sistemako erakunde eta agentzien ohiko baliabideen  
mende gelditu ziren erronka horiek gauzatzeko beharrezkoak izango ziren  
baliabide ekonomikoak. Baliabide faltaren eta herrialde boteretsuenen al-  
deko politika ekonomikoaren lehentasunak aldatzeko borondate faltaren  
ondorioz, bete gabe gelditu ziren milurtekoko helburu nagusiak, baita po-  
breziaren eta gosearen ingurukoak ere [5]. Izan ere, arlo ekonomikoan neo-  
liberalismoa nagusitzearekin, nazioarteko lankidetzara ahuldu eta jarduera  
horretara zuzendutako baliabideak gutxitu dira; horrek helburuak lortzera  
propio bideratutako ekimenak ahulak izatea ekarri du, zeren, ikuspegi ho-  
rren araberrako politika ekonomikoaren norabide nagusia liberalizazio eko-  
nomikoa eta estatuaren esku-hartzerik eza izanik, helburuak lortzeko beha-  
rrezko neurriak ez ziren modu esanguratsuan babestu: enplegua indartzeko  
politikak, elikadurarako nekazaritza-produkzioa, eta abar. Horrez gain,  
merkatuaren legea indartzen eta baldintza desberdinetan dauden lehiaki-  
deen arteko lehia ekonomikoa sustatzen jarraitu zuten [6].

## **2. GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK, 2030 AGENDA ETA GOSEA AMAITZEKO BIGARREN HELBURUA**

2015. urtean, lankidetzaren ikuspegi mugatu horri eutsiz, 2015-2030  
aldirako konpromiso berriak adostu ziren, hain justu ale berezi honetan az-  
tertzen ari garen Garapen Iraunkorrerako 17 Helburuak (GIHak), 2030eko  
iraunkortasunaren agenda gisa ere ezagutuak direnak. 2030 Agendaren be-  
rritasun nagusia zera da, ingurumenaren eta giza bizitzaren iraunkortasuna  
jartzen duela erdigunean, epe labur eta ertaineko beste helburuen aurretik  
(orain arteko ondasun materialen hazkunde ahalguztidunaren aurretik ere).  
Eta hori mundu mailako herrialde guztien egiteko gisa, bai herrialde abe-  
rats eta aurreratuetan, eta baita bestelako herrialde azpigaratu, garatu berri  
edo garapen bidean direnetan ere. Ondasun materialen hazkunde oro ahal-  
dunaren izenean natura-baliabideak gainustiatzeak eta ingurumen- eta kli-

ma-aldaketak eta larrialdiak bultzatuta, beste garapen-eredu iraunkorrago bat lortzeko ibilbidea markatzen du, herrialde ororentzat, 17 esparrutan, bai ingurumenari begira, eta baita gizakion bizitzeari begira ere. Ekimena aukera baliagarria izan daiteke, baldin eta lortzen bada orain arteko ekonomiaren ikuspegi materialista eta merkatuzalea eta haren barneko botereen indarra ahultzea (elite finantzarioena eta ETNena, besteak beste).

Adierazpen horren barruan dago artikulua honetan jorratuko dugun garapen iraunkorrerako 2. helburua. Helburuak honako izendapen hau du: «2. helburua. Gosea amaitzea, elikagai-segurtasuna eta elikadura hobea lortzea, eta nekazaritza jasangarria bultzatzea». 5 azpichelburu horiek gauzatzeko, 3 lan-ildotako xedeak lehenetsi dira (ikus 1. taula).

Laburbilduz, gobernuek konpromisoa hartu dute gosea amaitzeko, elikadura-segurtasuna eta nutrizioa hobetzeko, eta nekazaritza iraunkorra sustatzeko. Horretarako, politika holistikoa landuko dute, elikadura-ekoizle txikiak babestuz, elikadura-sistema erresilienteago, iraunkorrago eta genetikoki ezberdinoak bultzatuz, eta era berean bermatuz kontsumitzaile guztiek (batez ere behartsuek eta zaugarriek) elikagai osasungarriak eskuratu ditzaketela eta kontsumo-eredua osasuntsuagoa eta iraunkorragoa dela, horrenbeste janari alferrik galdu gabe. Sekulako erronka da, bai, eta 2030erako gauzatu nahi da [7]. Lan honetan, taulan azpimarratuta dauden lehen bi azpichelburuen inguruan hausnartuko dugu nagusiki.

Horretarako, honako ildo honi jarraituko diogu: azalduko dugu zer ekonomia-harreman zehatzengatik den ezinezkoa gosea amaitzea. Izan ere, ekoizpen-ahalmena ez da egungo arazoaren zergati nagusia, baizik eta elikagaien eskuragarritasuna, hau da, elikagai horiek nagusiki merkatuan eskuratzeko dauden arazoak. Izan ere, elikagaien eskuragarritasuna oztopatzen duten prozesuek lotura zuzena dute elikagaien ekoizpen- eta banaketa-prozesuak beste edozein salgairen prozesuak bezala tratatzeko propio hartu diren politikekin.

Hala, hurrengo atalean, egungo elikadura-sistemaren ezaugarri nagusiak aztertuko ditugu, bai eta egoera honetara iristeko jarraitutako bide nagusiak ere, ekonomiaren eta nekazaritzaren merkantilizazio- eta liberalizazio-politiken nondik norakoak erakutsiz. Gero, politika horiek nekazaritza- eta elikadura-arloan eragin dituzten aldaketa nagusiak eta egun merkatu horietan bizi den kontzentrazio- eta merkatu-boterea azalduko ditugu, bai herrialdeetako merkatuei eta baita nazioarteko trukeei begira ere. Ondoren, herrialdeek egun duten elikagaien eskuragarritasun maila aztertuko dugu, bai ekoizpenari eta baita merkataritzari dagokienez ere, eta nola egun hainbat herrialde kanpoko elikagaien inportazioen mende dauden, eta nola horrek elikadura-beharrak asetzeko ziurgabetasuna handitzen duen, eta gosearen eragina handitu. Gosearen egungo datu ofizialak ere erakutsiko ditugu, eta datu horiek zer mailatan bihurtzen duten egingarri edo ezinezko gosea amaitzeko helburua. Azkenik, ondorioen atalean, azpi-

marratuko dugu zer politika aldatu behar diren eta zer norabidetan, gosea amaitzeko helburua benetan bideragarria izan dadin, hau da, nekazaritzan oinarritutako elikadura- eta nekazaritza-sistema iraunkorrak sor daitezzen burujabetzaren eta hurbileko elikagaien bidez.

**1. taula.** Garapen Iraunkorrerako Bigarren Helburua: gosea amaitzea, elikagai-segurtasuna.

**2.1 Hemendik 2030era, gosearekin amaitzea** eta pertsona guztiek, bereziki pobreek eta ahultasun egoeran dauden pertsonak, 1 urtetik beherako umeak barne, urte osoan zehar elikadura osasuntsua, nutritiboa eta nahikoa eskuratzeko aukera dutela ziurtatzea.

**2.2 Hemendik 2030era, malnutrizioaren modu guztiekin amaitzea,** eta, beranduenez 2025ean, nazioartean hazkundearen atzerapenaren eta 5 urtetik beherako umeen ahultasunaren gainean hitzartutako erronkak lortzea, eta nerabeen, haurdun daudenen eta bular-emaille diren emakumeen eta adineko pertsonen nutrizio beharrei erantzutea.

2.3 Hemendik 2030era, nekazaritza ustiapena eta eskala txikian elikaduren ekoizle diren diru-sarrerak bikoiztea (bereziki, emakume, herri indigena, familiako nekazari, abeltzain eta arrantzaileenak), besteak beste, lurretara sarbide segurua eta bidezkoa edukiz, bai eta beste ekoizpen-baliabide eta input batzuetara eta ezagutza, finantza-zerbitzu, merkatu eta balioa eransteko aukeretara ere, eta nekazaritzakoak ez diren enpleguak lortzea.

2.4 Hemendik 2030era, elikagaien ekoizpen-sistemen jasangarritasuna ziurtatzea eta produktibitatea eta ekoizpena areagotzen duten, ekosistemei eusten laguntzen duten, klima-aldaketara, muturreko fenomeno meteorologikoetara, lehorte, uholde eta beste hondamendi batzuetara egokitzeko gaitasuna indartzen duten eta lurharen eta lurzorua kalitatea pixkanaka hobetzen duten nekazaritza-praktika indartsuak aplikatzea.

2.5 Hemendik 2020ra, hazien, landutako landareen eta etxaldetako eta etxeko animalien eta dagozkien baso-espezieen aniztasun genetikoari eustea, besteak beste, kudeaketa egokiarren eta hazi- eta landare-bankuen dibertsifikazioaren bidez, nazio, eskualde eta nazioarte mailan, eta baliabide genetikoak erabiltzearen eta ezagutza tradizional konexuen eta banaketa bidezko eta zuzenaren bidez, nazioarte mailan hitzartutakoaren arabera.

2.a Landako azpiegiturako, ikerketako eta nekazaritza eremuko zerbitzuetako, garapen teknologikoko eta ganaduaren eta landareen gene-bankuetako inbertsioa areagotzea, baita nazioarteko lankidetzaren bidez ere, nekazaritza eta abelazkuntza ekoizpenaren gaitasuna hobetzeko garapen bidean dauden herrialdeetan, batez ere aurrerapen txikieneko herrialdeetan.

2.b Munduko nekazaritzako eta abeltzaintzako merkatuetan, merkataritza murrizketak eta desitxuratzeak zuzentzea eta prebenitzea, nekazaritza ustiapenei diruz laguntzeko modu guztien eta efektu baliokideak dituzten esportazio neurri guztien ezabatze paraleloaren bidez, Garapenerako Dohako Errondaren aginduarekin bat.

2.c Elikadurako oinarrituko produktuen eta eratorrien merkatuak ondo dabiltzala ziurtatzeko neurriak hartzea, eta merkatuei buruzko informaziorako sarbide egokia bideratzea, baita elikaduren erreserben gainean ere, elikagaien prezioen muturreko lurrunkortasuna mugarren laguntzeko eta elikadura hobea lortzea, eta nekazaritza jasangarria bultzatzea.

Iturria: NBE. 2015.UNESCO Etxeak argitaratuko euskarazko bertsioa.

### **3. EGUNGO MUNDUKO ELIKADURA-SISTEMA ETA HAREN BILAKAERA HURBILA**

Nazioarteko elikadura-sistemaren egungo eraketan, hiru prozesu izan dira nagusi XX. mendearen erdialdeaz geroztik. Lehenengoa, herrialde garatuetako (AEB eta Europa, batik bat) nekazaritza-politiken bilakaera. Bigarrena (aurrekoarekin hertsiki lotuta dagoena), 1980ko hamarkadatik aurrera Muga-zerga eta Merkataritza Akordio Orokorreko (GATT) Uruguaiako negoziatio-txandan Nekazaritza Akordioaren (NA) bidez gauzatu ziren nekazaritza-arloko ondasunen trukeen liberalizazioaren aldeko politikak. Eta hirugarrena, 1980ko hamarkadatik aurrera Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) eta Munduko Bankuak (MB) Hegoaldeko herrialdeetan ezarritako egiturazko doikuntza-programak (EDP) [8].

Nekazaritzako hiru prozesu nagusi horiek eta haiekin batera nazioarteko kapital- eta finantza-mugimenduak liberalizatzeak jarraipena izan zuten geroago jabego intelektualaren babeserako politiken bidez, agroerregaien produkzioa sustatzeko politiken bidez eta kontinente arteko merkataritza askeko akordioen bidez. Izan ere, 2010etik aurrerako Munduko Merkataritza Erakundearen (MME) blokeoa ikusita, eta hark bideratutako negoziatioak guztiz alboratu gabe, erakundeak berak salbuespen gisa onartutako liberalizazio-prozesua areagotzeko saiakerak izan dira erregio (kontinenteak tartean direla) mailako merkataritza- eta inbertsio-hitzarmenak adosteko. Hitzarmen horien helburu nagusiak hauek izan dira: nazioarteko inbertsioetarako babes gehigarria lortzea, tokian tokiko arau-eragozpenak desagerraraztea, eta muga-zergak jaitea, bereziki nekazaritzan. Horren adibide dira gure esparruko Transatlantic Trade and Investment Partnership (TTIP) eta Comprehensive Economic and Trade Agreement (CETA), edota Europaren eta Mercosurren arteko hitzarmena.

Neurri multzo horiek guztiek baldintzatu egin dute, maila handiagoan edo txikiagoan, egungo elikadura-sistema agroindustrial globalizatuaren izaera. Batetik, aldaketa nabarmena eragin dute elikaduraren eta nekazaritzaren funtzio sozialean, azken hori alboratuz, elikagaien merkantilizazio-prozesua bultzatuz eta elikagaiak salgai bihurtuz, hots, mozkinak lortzeko tresna bihurtuz. Bestetik, elikagaien nazioarteko merkataritza-fluxuen garrantzia eta eragina indartu da, bai Iparraldean, bai Hegoaldean; ondorioz, nazioarteko merkatuaren garrantzia indartu da, eta horrek gero eta eragin erabakigarriagoa du produktu askoren prezioa finkatzeko orduan eta hainbat herrialderen produkzio-aukeretan.

#### **3.1. Herrialde garatuen nekazaritza-politikak**

1960tik aurrera, AEBk eta sortu berria zen Europako Erkidego Ekonomikoak (EEE) beren nekazaritza-sektoreak babesteko aurrera eramana-

dako neurriek (muga-zergak, prezio babestuak, dirulaguntza zuzenak, esportazioetarako kredituak eta dirulaguntzak, batez ere) produkzio-soberakin handiak sortu zituzten. Soberakin horiek nazioarteko merkatuetan diruz lagundu eta dumpingeko baldintzetan komertzializatu ziren, eta horrek prezioen beherako eragina sortu zuen nazioarteko merkatuetan, eta Hegoaldeko herrialdeetako nekazari txikien ekoizpen-aukerak mugatu zituen.

Europaren kasuan, Nekazaritza Politika Bateratuak (NPB) markatu du azken 6 hamarkadetan nekazaritzaren nondik norakoa, Europako nekazaritza babestuz, haren modernizazioaren eta intentsifikazioaren aldeko apustua eginez, eta nazioarteko merkatuetan lehiakorrak izatea bilatuz. NPB 1962an sortu zen, elikagaien eskaintza eta hornikuntza sustatzeko asmoarekin: herritarren beharrianak zentzuzko prezioetan aseko zirela bermatzearekin batera, nekazarien diru-sarrerak bermatzeko. Hamarkada baten ondoren, prezio-politiken ondorio tamalgarriak azaleratzen hasi ziren: Europako nekazaritzak soberakinak metatu, eta nazioarteko merkatuetara bideratu ziren, eta horrek nazioarteko prezioak jaitsaraztea, hainbat herrialdeetako nekazariak porrotera eramatea eta herrialde horien ekoizpenerako eta autohornikuntzarako gaitasuna murriztea ekarri zuen. Bitartean, Europako nekazaritzan, ustiapenek desagertzen jarraitu zuten, eta produkzioa eta dirulaguntzak gero eta ustiapen handiagoetan metatu ziren.

AEBren kasuan, nekazaritza-politika 1949ko Oinarrizko Nekazaritza Legearen (*Farm Bill* delakoa) bitartez arautzen zen, eta bost urtean behin eguneratzen zen legea. Lege horiek ere erabili dituzte prezio bermatuak, ordainketa zuzenak eta esportazio-kredituak AEBko nekazaritza babesteko. Gerra Hotzaren garaian, AEBko zenbait administrazioek sortutako elikagaien soberakinak garapen bidean zeuden herrialdeentzako elikadurailaguntza gisa bideratu zituzten, beren interes geopolitikoak babesteko helburuarekin. Halako esportazioek distortsio handiak sortu izan dituzte herrialde inportatzaileen merkatuetan ere.

1980ko urteetatik aurrera, eta pentsamendu neoliberalak gailendu izanaren ondorioz, nekazaritza-politikaren eta landa-eremuaren garapenaren orientazioa nabarmen aldatu da, eta, ordutik aurrera, liberalizazio ekonomikorako neurriak lehenetsi dira mundu mailan. Norabide-aldaketa hori, guzuzen, NPBaren zenbait erreformaren bidez gauzatu da. Hala, nekazaritzako errentak babesteko eta haiei eusteko politikak aldatu dira, prezioei eustetik zuzeneko ordainketetara eginez, ekoizpena edozein dela ere (ustez, «merkatua ez nahasteko» eta merkataritzako akordioak betetzeko).

### **3.2. Munduko Merkataritza Erakundearen Nekazaritza Akordioa**

Liberalizaziorako joera berria 1986tik aurrera hasi zen gauzatzen: nekazaritza-sektorea lehen aldiz sartu zen nazioarteko merkataritzaren libe-

ralizaziorako negoziazio komertzialetan, GATT akordioaren Uruguaiako txandan. Txanda hori 1994an amaitu zen, eta nekazaritzako merkataritzako muga-zergak apurka murrizteko akordio bat egin zen: Nekazaritza Akordioa (NA), alegia.

Negoizazio-txanda horretan adostu zen NAK bi helburu argi zituen: bata, nekazaritza-produktuen nazioarteko merkataritza oztopatzen zuten arauak aldatzea; eta bestea, liberalizaziorako arau berriak sortzea muga-zergen jaitsieretan oinarrituta. Bi helburu nagusi horiekin, NA honako eremu hauetan egituratu zen: a) muga-zerga ez ziren babes-neurriak mugazerga bihurtzea; b) muga-zergen bidezko babes murriztea eta esportaziorako dirulaguntzak desagerraraztea; c) merkatuetarako sarbidea.

Zortzi urteko negoziazioen ondoren lortutako benetako emaitza oso urria izan zen; izan ere, kostu eta etekinen banaketa oso desberdina zen herrialde kideen artean, eta liberalizazioaren pisu handiena Hegoaldeko herrialdeen gain geratu zen. Hala, 1995ean indarrean jarri zenetik, NAK aplikazioa eta garapena MMEren Nekazaritza Batzordearen esku geratu ziren. Erabaki horiek nabarmen oztopatu dute hainbat herrialde eta nekazari txikiren jarduna, eta baita milioika pertsonaren elikadurarako eskubidea ere. Izan ere, hitzarmen horren neurriak betearazleak dira, elikadurarako eskubidea ez bezala.

2001ean, MMEk Dohan egindako konferentzian, nekazaritzaren liberalizaziorako agintea luzatu zen, baina, harrezkerotik ia 20 urte igarota, oraindik ere bukatu gabe dago. Izan ere, ikuskera ezberdinak daude nola jarraitu behar duen aurrera nekazaritzaren liberalizazio-prozesuak. Alde batetik, garabidean dauden herrialdeek zera nahi dute aurrera egin aurretik: NAK haien nekazaritza sektorean izandako ondorioak ebaluatzea, eta haien ekonomia babesteko aukeraren bat izatea, elikagaien hornikuntza eta elikadura-segurtasuna bermatu ahal izateko (2007-2008ko elikagaien krisialdiak larri kaltetu baitzituen). Ildo horretan, eskatu dute onar dezatela baimendutako neurrien artean garapen-kutxa bat ezartzea, nekazaritzari laguntzeko neurriak hartu ahal izateko, beren elikagaiak ekoiztea ahalbidetzeko eta beren ekonomien eta gizartearen garapena bultzatzeko; alegia, Iparraldeko herrialdeek oraindik ere beren nekazari handiei lehiakor izaten laguntzeko dituzten neurri berberak. Beste alde batetik, Iparraldeko herrialdeek eta Cairns Taldeko kideek merkatuak liberalizatzeko neurri berriak eta handiagoak hartzeko eskatzen dute, beren nekazaritzako elikagaien ekoizle handien eta industriaren mesederako.

Baina, 20 urte luzetako negoziazioak eta elikadura-krisi larria tarteko, ez dira gai izan nazioarte mailako akordio aipagarririk lortzeko elikaduraziurgabetasuna eta gosearen eragina arintzeko. Izan ere, negoziazio horietan eta elikadura-krisiari aurre egiteko hartu beharreko neurriak finkatzekoan aipatutako liberalizazio-prozesuetan sakontzea izan da Iparraldeko



botereen ildo nagusia, eta ez elikadura-segurtasuna bermatzea. Areago, elikadura-segurtasuna bermatzeko, Hegoaldeko ekimenak tratatu dira MMEEn [9].

### **3.3. Merkataritzari Loturiko Jabego Intelektualaren Babeserako Akordioa**

Globalizazio neoliberalak eta Nazioz Gaindiko Enpresek (NGE) nekazaritza-sektoreari eragindako erasoak MMERen Merkataritzari Loturiko Jabego Intelektualaren Babeserako Akordioaren (MLJIBA) gauzapenean eta geroko kudeaketan nabaritu zen argien. 1995eko akordio horren bidez, jabetza intelektualeko eskubideen babesak areagotu zen, herrialde guztiak behartzen zituelako 10 urteko epean patenteen, marka erregistratuen eta egile-eskubideen babesak barne hartuko zuen jabetza intelektualak babesteko lege bat sortzera.

Nekazaritzari dagokionez, akordio horrek bultzada nabarmena eman zien bioteknologiari eta genetikoki eraldatutako organismoetan (GEO) —hots, transgenikoetan— oinarritzen den nekazaritza-ekoizpenari. MLJIBAREN babesarekin, eraldaketa genetikoki horiek patentatu egin daitezke, eta kimikaren eta bioteknologiaren sektoreko NGEEi bidea ireki zien hazien eta landareen inguruko mundu mailako ezagupenari merkataritzako erabilera pribatua emateko. Nahikoa da existitzen ziren haziak genetikoki eraldatzea, asmakuntza gisa patentatu eta eskusibotasuna edukitzeko.

Hala, mundu mailan dauden hazi-bankuak merkataritzako irabaziak lortzeko harrapakin tentagarri bihurtu ziren. Belaunaldiz belaunaldi munduko nekazariak sortu duten ezagupen-ondarea eta hazien hobekuntza irabaziaren logikaren mehatxupean jarri ziren. MLJIBAK zabaldutako bideak, beraz, arriskuan jarri zituen nekazaritzako bioaniztasuna eta haren etekinen banaketa berdinzalea.

### **3.4. Agroerregaien sustapen- eta finantza-eragiketen liberalizazio-politikak**

Merkataritza-arloan bezala, 1990eko hamarkadan nazioarteko finantza-merkatuetan gertatu zen liberalizazio sakonak finantza-bitartekaritzarako modu berri bat ezartzea ekarri zuen, kapitalen nazioarteko mugimenduen kontrola desagerraraztean eta inbertsiogile instituzionalen bidez tituluen saldo eta erostean oinarritua. Hala, geroztik, merkatu horietan oso kapital bolumen altua mugitzen da planeta osoan, egunero, epe laburreko errentagarritasun handienaren bila. Mugimendu izugarri horietako atal bat nekazaritza-produktuen merkatuetan egiten diren tituluen salerosketak dira; nazioarteko merkatuetan trukatzeko den uztaren prezioen inguruko finantza-eragiketak, alegia.

Izan ere, 2008ko nazioarteko finantza-krisialdiaren ondorioz, inbertsiogile instituzional horiek merkatu berriak behar izan zituzten, inbertsioak egiteko ohiko merkatuak gain behera zirelako eta haien inbertsioen arrisku handia murrizteko asmoz. Hala, inbertsiogile horietako batzuek oinarritzko produktuen nazioarteko merkatuak —elikagaien merkatuak barne— aukeratu zituzten beren inbertsioak gauzatzeko. Ondorioz, bai garaian garaiko nekazaritza-salgaiak, bai etorkizunekoak eragile instituzional horien epe laburreko errentagarritasuna lortzeko espekulazio-erabakien mende geratu ziren. Beharrak asetzeko helburuarekin ondasunak nazioartean saltzea haien prezioen inguruko apustuen mende dago, eta, ondorioz, elikagai horien inportazioen beharrean daudenen kostua modu artifizialean igo da, eta elikagaien eskuragarritasuna mugatu, zaildu eta garestitu.

Era berean, nekazaritza-gaien nazioarteko merkatuetan, presioa areagotu zen, herrialde industrializatuek gero eta kezka handiagoa baituzten berotegi-efektua eragiten duten gasen jaulkipenak sorturiko klima-aldaketaren ondorioen aurrean. Izan ere, erregai fosil solidoetan oinarrituriko energia-ereduaren eragin kaltegarria eta agortze hurbilak eragina izan zuen 2000tik aurrera Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundeko (ELGE) 34 kideek nekazaritzako erregai likidoen —bereziki etanola eta biodiesela— garrariorako erabilpena sustatzeko neurriak hartzeko orduan. Neurri horiek, gainera, ez ziren mugatu barneko ekoizpenari. Hegoaldeko hainbat herrialderekin izandako akordioez baliatuta (edo zuzenean ezarriz), salgai horien ekoizpena sustatu zuten Hegoaldean, Iparraldeko herrialdeetara esportatzeko. Hortaz, industria-erabilerarako nekazaritzako elikagaien eskaera handitu zen, eta elikadurarako elikagaien eskaerarekin lehian sartu bete-betean. Horren ondorioz, elikadura- eta finantza-korporazio handiek Hegoaldean lurra eskuratu eta metatzeko prozesuak ezarri dituzte, tokiko nekazarietzako lur-aukerak murriztu dira, eta haien lurra halako ekoizpenetara bideratu. Prozesu horri lurren arpilatzea deritzo, eta asko hazi da 2008ko finantza- eta elikadura-krisialdiaz geroztik gaur egun arte [10, 11].

### **3.5. Egiturazko Doikuntza Programak (EDP) eta kanpora begirako nekazaritza-eredua**

Ekonomiaren liberalizaziorako joerak beste eragin-eremu garrantzitsu bat izan zuen 1980ko hamarkadatik aurrera Hegoaldeko ekonomietan, haien kanpo-zorraren arazoak eztanda egin zuenean. Izan ere, zor hori berreskuratzeke asmoz, NDFk eta MBk diseinatutako EDPak abian jarri zituzten herrialde horietan. EDPeke oinarritzko bi zutabe zituzten: merkatu-harremanak eta ekimen pribatua, batetik, eta kanpoko sektorearen liberalizazioa, bestetik.

Testuinguru horretan erabakitako politikek berebiziko eragina izan zuten nekazaritza-sektorearen etorkizunean. Izan ere, oreka makroekonomi-

koa lortzeko egonkortasun-programek inflazioaren murrizketa zuten helburu bakar. Eta hura lortzeko bide nagusia gastu publikoaren murrizketak izan ziren, tartean nekazaritza-sektorean egindako gastu publikoa (prezioei eusteko gastuak, biltegiatze-gastuak, elikagaien banaketa eta merkaturatzea gauzatzeko gastuak...). Horrekin batera, EDPeK nekazaritza nazioarteko merkatuetan irteera zuten nekazaritzako produktuen ekoizpenari begira jartzea bilatzen zuten. EDPen ikuspegi berrian, nekazaritza-sektoreak izaera esportatzailea zuen, hau da, barne-merkatuaren beharrak ase ordez, kanpo-zorrari aurre egiteko beharrezkoak ziren dibisak lortzeko tresna zen, barneko elikadura-beharrak alde batera utzita.

Hala, nekazaritzaren zeregina eraldatu egin zen: merkatu nazionaleko biztanleen elikadura-beharrizanak nekazarien tokiko komunitateen bidez asetzeko, oinarrizko elikagaiak ekoiztetik (artoa, patata, arroza, garia...) usiategi estentsiboetan kanpo-merkatuak labore bakarrak ekoiztera (kafea, kotoia, soja, kakaoa...) iragan ziren. Aldaketa horrek ahalbidetu zuen eredu industrialia Hegoaldera ere zabaltzea. Izan ere, kanpora begirako sektoreak lur kopuru handiak, ongarriak eta mekanizazio maila altua behar zituen. Eraldaketa horren islarik adierazgarriena elikadurarako nekazaritza-produktuak (artoa, soja, azukrea...) gero eta gehiago erregai likidoen ekoizpenerako salgai gisa erabiltzea izango litzateke.

EDPeK aldatu egin zuten herrialdeen elikadura-beharrizanen asetzeari gidatzen zuen filosofiaren funtsa. Elikagaien ekoizpen propioa eta nekazari txikien bizimodua alboratu ziren, eta merkatua —batez ere nazioartekoa— erdigunean jarri. Geroztik garrantzia duen bakarra da behar diren elikagaiak erosteko behar beste dibisa edukitzea eta ez horrenbeste barneko ekoizpen-ahalmena, horrek elikagaien inportazioen mendekotasuna eta NGEen negozioak bultzatzea badakar ere.

### **3.6. Nazioarteko korporazioen pisu hazkorra**

Aipatu ditugun modernizazio- eta liberalizazio-prozesuek ondorio zuzena izan dute nazioarteko eta herrialde barneko elikadura-sistemetan, baita modu nabarmenean haien barnean kokatzen diren elikaduraren balio-kateetan ere, eta, ondorioz, izaera globala eskuratzen eta sektore mailako balio-kate globalak (BKG) osatzen dira. Balio-kate global horietan, nekazariak, alde batetik, lehengaien hornitzaile huts bilakatzen dira, industria eta banaketa handiaren barnean bertikalki integratzen diren heinean, eta, bestetik, zenbait inputen (haziak, ongarriak, errekinak, pestizidak, eta abar) mendeko bezeroak dira, input horien hornikuntzarako enpresa agrokimikoen eskuetan dauden heinean. Kasu askotan, inputen eta ekoizpenaren erosketa-salmenta pakete bereberean integratuta daude; hala, nekazariaren ekarpena lurra eta beraren lana dira, eta balio erantsiaren zatirik handiena balio-katearen beste katebegietan geratzen da. Hala, produkzioa, eralda-

keta, banaketa eta kontsumoa integratu egiten dira, gehienetan herrialdeen mugen gainetik.

Lehengaien balio-kateetan, komertzializazioa merkatu zentralizatuetan egiten da, eta prezioak erabakitzen du non eta noiz egiten diren transakzioak. Bitartekari eta korporazio handiek salgaiak kostu baxutan eta oso azkar eskuratu ditzakete, eta hainbat hornikuntza-iturritarako sarbidea izaten dute, komertzializazio-sistema estandarizatu eta malguei esker. Areago, finantza-kapitalaren hedapenak enpresa-antolaketarako modu hori indartu du, eta nekazaritza-elikadura korporazioen eta banaketa handiko korporazioen kontzentrazioa eta hazkundera bultzatu eta indartu.

**2. taula.** Txikizkako banaketa talde nagusiak (2018).

| Rankingeko postua | Izena                        | Jatorrizko herrialdea | Sarrerak (milioi USD) | Merkataritza-eragiketak          | Eragiketen herrialdeen kopurua |
|-------------------|------------------------------|-----------------------|-----------------------|----------------------------------|--------------------------------|
| 1                 | Wal-Mart Stores, Inc         | AEB                   | 514.405               | Supermerkatuak                   | 28                             |
| 2                 | Costco Wholesale Corporation | AEB                   | 141.576               | Deskontu-dendak / hipermerkatuak | 11                             |
| 3                 | Amazon. Com, Inc             | AEB                   | 140.211               | Deskontu-dendak / supermerkatuak | 16                             |
| 4                 | Schwarz Group                | Alemania              | 121.581               | Botikak/farmazia                 | 30                             |
| 5                 | The Kroger Co.               | AEB                   | 117.527               | Supermerkatuak                   | 1                              |
| 6                 | Walgreen Boots Alliance, inc | AEB                   | 110.673               | Botikak/farmazia                 | 10                             |
| 7                 | The Home Depot               | AEB                   | 108.203               | Deskontu-dendak / supermerkatuak | 3                              |
| 8                 | ALDI group                   | Alemania              | 106.175               | Deskontu-dendak / supermerkatuak | 19                             |
| 9                 | CVS Health Corporation       | AEB                   | 83.989                | Botikak/farmazia                 | 2                              |
| 10                | Tesco PLC                    | Erresuma Batua        | 82.799                | Supermerkatuak                   | 8                              |
| Top Ten           |                              |                       | 1.527.140             |                                  | 12,8                           |

Iturria: Deloitte (2018 eta 2020).

Hala, NGE handien kopuru txiki batek kontrolatzen ditu ekoizpen-, komertzializazio-, eraldatze- eta banaketa-faseak, garraioan, biltegiatzean, finantzaketan eta halako jardueretan eskala-ekonomiak baliatuz. Prozesu horrek mundu mailako eskala globala hartu du azken hamarkadetan, eta BKGak jaun eta jabe dira egungo elikadura-sistema globalizatuan: herrialdeen arteko ekonomia-fluxuak nahi erara moldatzen dituzte (esportazioa, inportazioa, AIZ, finantza-fluxuak...).

Ondorioz, aurreko 2. taulan [12, 13] ikus daitekeen bezala, azken hamarkadetan, banaketa handiko enpresek BKGen kontrola eskuratu dute, eta elikadura-enpresek aurretik zeukaten indarra ordezkatu.

#### **4. NAZIOARTEKO ELIKAGAIEN ZIURGABETASUNA ETA ELIKADURA-MENDEKOTASUNAREN HANDITZEA**

Arestian aipatutako politika horien ondorio nagusia zera izan da, aldatu egin dela elikagaiak eskuratzeko eta beharrak asetzeko bidea, gero eta gehiago nazioarteko merkataritza baita elikagaiak eskuratzeko bide nagusia [14]. Horrek kalte esanguratsuak eragin ditu Hegoaldeko hainbat herrialdetan. Izan ere, politika horien ondorioz, garapen bidean dauden herrialdeetako elikagaien inportazioak asko igo dira, bai fisikoki, bai balio aldetik, 2008ko krisiaz geroztik elikagaien prezioek gora egin dutelako. Hala, garapen bidean dauden elikagai-inportatzaile garbiek (PEDINA) 2007-2008ko elikagai-krisiaz geroztik 1995ean halako bi eta lau diru kopuru handiagoa bideratzen dute —20.000 milioi dollarreraino— elikagaiak erostera, bai prezioek bai inportatutako kopuruek gora egin dutelako. Prezioak % 50 eta % 100 artean igo dira 2002-2004tik 2015era bitartean, eta inportatutako kopuruak bikoiztu egin dira 1995-2013 aldian [15].

Orain arte, posible izan da faktura gehigarri hori ordaintzea, zeren eta nekazaritzako produktuak esportatzeagatik elikagaiei ez dagozkien diru-sarrerak elikagaien fakturak baino gehiago hazi dira, Afrikan izan ezik. Hain zuzen, Afrika nekazaritzako produktuen esportatzaile garbia izatetik inportatzaile garbia izatera igaro da, eta elikagaien inportazioak nekazaritzako produktuen esportazioak baino gehiago hazi dira. Areago, Afrikako herrialdeetako elikagaien inportazioen balioa, batez beste, nekazaritzako produktuen esportazioetatik lortutako baliabideen % 30 da [16].

Baina ez dago argi Hegoaldeko herrialde askotan inportazio horiek arazorik gabe egiten jarraitu ahal izango duten ala ez etorkizunean, horrek dakarren diru-ahaleginagatik eta Hegoaldeko herrialdeetako nekazaritza-sektorean dituen ondorioengatik. Esportazioagatik lortutako diru-sarreraren ehuneko handi bat inportatutako elikagaien erosketa ordaintzera bideratzea, dibisak sortzeko ahalmenaren eta herrialdearen errenta-mailaren arabera, aukera ona izan daiteke, edo ez. Hori egingarria litzateke Erresuma Batuan

edota Japonian, uharte aberatsak biak ere, baina ezinezkoa litzateke diru-sarrera txikiko Hegoaldeko herrialde askorentzat, batez ere Afrikakoentzat.

Kasu horretan, kanpo-apustu horrek esan nahi du uko egiten zaiola elikagaien ekoizpen nazionala bultzatzeari nagusiki landatarrak diren eta nekazaritza-jarduera handia duten herrialdeetan, eta nekazariak alde batera uzten dituela, pobrezia eta diru-sarrera txikien gorpil zoro batera kondenatuz. Zeren, horrela, Iparraldean diruz lagundutako ekoizpen handietatik datozen inportazio merkeek tokiko ekoizpenarekiko benetako lehia desleiala ekarri diote barne-produkzioari, eta produkzio-ahalmena gutxitu eta elikagaien kontsumo-otarrean produktu inportatuak sartu dira haien ordez. Horrek elikadura-mendekotasuneko egoera bat sortu eta herritarren artean elikadura-ziurgabetasuna hedatu du, eta, gosea murriztu ordez, haren hedapenari bidea eman dio [16].

3. taulak inpaktu horren ideia bat erakusten digu, elikadura-mendekotasunari dagokionez. Elikagaien inportazioek tokiko elikagaien horniduran duten pisua handia da Afrika osoan eta bereziki Iparraldean eta Ekialde Hurbilean, eta Erdialdeko Amerikan eta Kariben. Prozesu hori, ikusten denez, areagotu egin da azken urteotan. Hau da, nekazaritzaren liberalizazio-neurriak indarrean jarri direnetik.

**3. taula.** Hegoaldeko herrialdeen elikadura-mendekotasunaren ratioak, ehunekoetan (1995-2018).

| Erregio zonaldeak   | Inportazioak/produkzioa |           |           |           |           |
|---|-------------------------|-----------|-----------|-----------|-----------|
|   | 1995-2000               | 2001-2006 | 2007-2011 | 2012-2013 | 2014-2018 |
| Afrika  | 34,7                    | 39,0      | 42,6      | 43,0      | 48,6      |
| Erdialdeko Amerika eta Karibea                                  | 55,1                    | 76,8      | 70,2      | 72,5      | 78,6      |
| Hego Amerika  | 23,7                    | 19,4      | 20,3      | 18,8      | 16,7      |
| Asia eta Pazifikoa  | 14,5                    | 13,9      | 13,4      | 14,4      | 14,5      |
| Ekialde Hurbila eta Iparraldeko Afrika                          | 78,2                    | 73,4      | 91,7      | 90,7      | 105,9     |
| Asiako Erdialdea  | 66,6                    | 73,4      | 91,7      | 97,8      | 109,9     |
| Gutxien aurreratutako herrialdeak                               | 13,3                    | 15,2      | 15,4      | 9,7       | 19,9      |
| Sarrera baxuko eta elikagai-defizit handiko herrialdeak         | 7,0                     | 9,1       | 10,0      | 17,4      | 12,8      |
| Elikagai-inportatzaile garbiak diren sarrera baxuko herrialdeak | 24,1                    | 23,7      | 25,6      | 31,4      | 33,0      |

Iturria: egileak egina, FAOSTAT datu-baseko datuetan oinarrituta.

Hala ere, diskurtso hegemonikoak, 2030eko garapen iraunkorrerako agendan bertan ere, nazioarteko merkataritzaren aldeko apustua egiten jarraitzen du munduko elikadura-premiak betetzeko, bereziki eraginkortasun eta garapen maila baxuko herrialdeei dagokienez, eta ez du kontuan hartzen elikadura-mendekotasuneko egoera horrek zer arrisku dakartzan pisu gutxiko eta nazioarteko agertokian eragiteko ahalmen urria duten herrialdeentzat.

Izan ere, Dohan adostutako negoziazio-agindua Iparraldeko herrialdeen jarreraren aldekoa izan zen berriro, ez baitzuen bildu aurreko akordioaren eraginaren berrikuspena, ez eta Hegoaldeak eskatzen zuen tratamendu berezia ere. Liberalizazio-prozesu asimetrikoarekin aurrera jarraitzea adostu zen, finean. Hegoaldearen beharrak eta haiekiko tratamendu berezia asmoak adierazteko hitzetan baino ez ziren jaso. 2007-2008ko elikadura-krisian ere, krisia eta prezio garaiak ez ziren espekulazio finantzarioaren ondorio gisa ikusi, baizik eta Dohako liberalizazio-prozesua ez gauzatzearen ondorio gisa [9].

Baina, gaur egungo testuinguru globalean, non elikagaien prezioen hezagkortasun handia dagoen eta nekazaritzako nazioarteko merkataritza-trukeetarako arau asimetrikoak indarrean dauden, nazioz haraindiko enpresa gutxi batzuek zitu-merkataritzaren gainean kontrol handia izanda (Archer Daniels Midland —Adm—, Bunge, Cargill eta Louis Dreyfus NGEek, ABCD izenekoek, zitu-merkataritzaren % 90 kontrolatzen dute [17]), ez dirudi aukerarik onena denik nazioarteko merkatuetatik datozen elikagaien inportazioetan konfiantza izatea herritarren elikadura-beharrak asetzeko iturri nagusi gisa. Are gehiago, munduko gainelikadura-, desnutrizio- eta malnutrizio-arazoak areagotzeko funtsezko faktorea da, hurrengo ataleko mundu mailako eta bereziki Hegoaldeko datuek erakusten ditugun bezala. Ikuspegi oker horrek oztopatu du eta oztopatuko du GIH-2a betetzea, bai orain arte, bai etorkizunean ere.

## **5. GOSEAREN ETA AZPIELIKADURAREN EGOERA ETA BILAKAERA 2015-2020 URTEETAN ETA 2030RAKO HELBURUA BETETZEKO AURREIKUSPENAK**

FAOren azken datuen estimazioen batezbestekoaren arabera, gaur egun munduan 768 milioi pertsona daude azpielikatuta, hau da, gose kronikoa dute; estimaziorik garaiena 811 milioi da, eta txikiena, berriz, 720 [18]. Haietatik 760 milioitik gora Hegoaldeko herrialdeetan bizi dira, eta gehienak nekazari txikiak eta, oro har, landa-eremuko biztanleak dira, emakumeak buru dituzten etxeak nagusi direla. Kopuru hori 327 milioi murriztu da 1990eko hamarkadaren hasierako batezbestekotik, hau da, 1990-1992 aldia —milurtekoko helburuen erreferentziatzako urte tartea— 2018-2020 urteetako batezbestekoarekin alderatzerakoan. Baina joera beherakor ho-

rrek eten esanguratsua izan du 2014tik aurrera, gaur egunera arte, eragin-dako pertsonen kopurua nabarmen hazi baita. Are gehiago 2020. urtean, pandemia dela eta. Urte horretan, 118 milioi igo zen goseak dauden pertsonen kopurua, aurreko bost urteetan bezainbeste.

**4. taula.** Azpielikatutako pertsonen kopuruaren bilakaera munduan, milioietan (1990-2020).

| Erregio zonaldeak                                       | 1990-1992 | 2000-2002 | 2005-2007 | 2010-2012 | 2014-2016 | 2016-2018 | 2017-2019 | 2018-2020 |
|---|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|
| Afrika  | 181,7     | 210,0     | 213,0     | 218,5     | 232,5     | 246,4     | 239,6     | 248,0     |
| Latinoamerika eta Karibea                               | 66,1      | 60,3      | 47,1      | 38,3      | 34,3      | 41,5      | 45,9      | 49,8      |
| Asia eta Pazifikoa*                                     | 726,2     | 617,2     | 645,3     | 525,4     | 490,1     | 512,9     | 378,7     | 378,0     |
| Ekialde Hurbila eta Iparraldeko Afrika                  | 16,5      | 23,1      | 27,3      | 33,9      | 33,0      | 48,8      | 45,6      | 56,4      |
| Europako eta Asiako Erdialdea**                         | 9,9       | 11,5      | 8,8       | 7,2       | 5,9       | 4,0       | 2,1       | 2,4       |
| Gutxien aurreratutako herrialdeak                       | 209,3     | 244,3     | 237,5     | 237,8     | 250,9     | 236,9     | 232,7     | 227,0     |
| Sarrera baxuko herrialdeak                              | 199,2     | 238,4     | 231,5     | 236,6     | 247,6     | 202,8     | 198,3     | 193,6     |
| Sarrera baxuko eta elikagai-defizit handiko herrialdeak | 460,2     | 468,9     | 512,8     | 474,0     | 495,8     | 524,9     | 452,7     | 472,2     |
| Munduko datuak, gutzira                                 | 1.010,6   | 929,6     | 942,3     | 820,7     | 794,6     | 809,9     | 673,0     | 683,9     |

Iturria: egileak egina, FAO et al. (2015, 2019, 2020 eta 2021) lanetan oinarriturik.

\* 2020ko txostenak, Txinako datuak berrikusi, eta murrizketa esanguratsuak egin ditu 2000tik aurrerako datuetan. Horrek Asiako eta munduko datuak jaistea ekarri du.

\*\* Asiako Erdialdekoak bakarrik, ez baitago 2017-2019 eta 2018-2020 tarteetako Europako herrialde-tako daturik.

Dena den, 1990eko hamarkadatik honako igoera- eta jaitsiera-datu orokor horiek askotariko errealitateak erakusten dituzte Hegoaldea osatzen duten herrialdeetan (ikus 4. taula). Hala, esaterako, Afrikan eta Ekialde Hurbilean gose direnen kopurua ia 70 milioi pertsona igo da; Asian eta Latinoamerikan, aldiz, 348 eta 16 milioi pertsona gose gutxiago daude, hurrenez hurren. Ekialde Hurbilean, goseak eragindakoen kopuruaren igoera 40 milioi pertsonakoa izan da. Areago, gosearen eragina zabala da gutxien



aurreratutako herrialdeetan eta sarrera baxuko eta elikagai-defizit handikoetan; igoera esanguratsua izan da aztertutako aldian, bilakaera aurrekoena baino gorabeheratsuagoa izan bada ere.

Hala, egun, mundu mailako goseak populazioan duen eraginaren pisua % 9,9koa da, GIH 2. Helburuak zehazten duen % 0tik oso urrun, eta, gainera, desberdintasun handia dago erregioen artean: Afrikan % 21, Latinoamerikan eta Asian % 9 eta Europan % 2. Dena den, sarrera baxuko herrialdeetan da eragina handiena: % 28,9 [18].

Gosearen muturreko egoeraz gainera, elikadura-ziurtasunik edota elikagai osasungarri nahikoetarako eskuragarritasunik ez dutenen kopurua kontuan hartzen badugu, ziurgabetasun-egoera askoz handiagoa da: 2.370 milioi pertsonari eragin zion 2020. urtean. Gauza bera esan genezake haurren nutrizioaren inguruko gabeziez, oraindik milioika baitira hazteko arazoak, pisu txikiegia edota gehiegizkoa dutenak. COVID-19aren eragina erabakigarria izan da horretan. Izan ere, 320 milioi pertsona gehiagori eragin dio elikadura-ziurgabetasun ezarekin loturiko egoeraren batek, eta 148 milioi pertsona gosetu gehiago izan dira, 2019ko datuekin alderatuz [18].

Datu horiek agerian uzten dute gosearen eta elikadura-ziurgabetasunik ezak eragin handia duela mundu mailan, joera gorakor esanguratsua agertuz, eta eragin handiena izanik elikadura-mendekotasun egoeratik eta deskribatutako liberalizazio asimetrikoko prozesuagatik gehien zigortutako Hegoaldeko eremu geografikoetan. Bertan ikusi daiteke ere, 2015ean ez zirela bete, inondik ere, 1996ko Munduko Elikadura Gailurraren helburua, hau da, 1990ean goseak zeuden pertsonen kopurua erdira jaitea, ezta Milurtekoko Garapen Helburuetako (MGH) 1. helburua ere, hau da, munduko gosearen ehunekoaren intzidentzia erdira murriztea.

Nahiz eta 2012an FAOk gosearen eragina kalkulatzeko metodologia aldatu eta zifra guztiak berrikusi, 1990-1992 aldiaren hasieran goseak zeuden pertsonen hasierako estimazioak barne, ez zen lortu helburua betetzea. Izan ere, berrikuspen horrek aldiaren hasieran 150 milioi pertsona azpielikatu gehiago egotea ekarri zuen eta aurreko azterlan guztietan gosearen eta azpielikaduraren intzidentzian jasotako goranzko joera errotik aldatzea. Hala, orduetik aurrera, gabezia horren intzidentziak behera egin du: gosearen intzidentzia murrizteko datu hobeak islatu, eta intzidentzia erdira murriztea lortu dela sinetsarazi da [19].

Aldaketa metodologiko hori gertatu ezean, gosearen eta azpielikaduraren datuek joera gogorragoa islatuko lukete Hegoaldeko populazioetan, eta milurtekoko helburuak lortu gabeko helburu gisa agertuko lirarteke nabarmen. Baina, aurrez aipatu bezala, aldaketa hori ez da izan bakarra, 2020ko FAOren txostenean [3] datuen beste berrikusketa garrantzitsu bat egin baitzen Txinari dagokionez. Zehazki, 2000. urtetik aurrerako gosearen kopuruak zuzendu dira, gutxitu, eta horrek nabarmen beheratu ditu Asiako eta

munduko azpielikatuen datuak. Ondorioz, 2019ko txosteneko 800 milioi gorako pertsona gosetuen kopurua nabarmen jaitsi zen, 690 milioiraino. Baina, hala ere, txosten horrek berak —eta are gehiago 2021ekoak, pandemiaren eragin latza kontuan hartzen duelako— aurreikusten du joera horri eutsiz gero ez dela lortuko 2030erako gosea amaitzea, inondik ere. Are gehiago, mundu mailan 660 milioi pertsona egongo dira gosez 2030ean, eta berriz ere bete gabe geratuko da GIHetako bigarren helburua. Erakundeak, hala ere, baikorrak dira: adierazi dutenez, zenbait politika-aldaketa eginez (elikagai osasungarrien egungo kostua jaisteko neurriak hartuz, finean), helburua lortzeko modukoa da, eta bide hori hartzeko deia egin dute.

Erakundeak zuzen daude esaten dutenean gosearen iraunkortasunaren arrazoi nagusia dela milioika pertsonak ez dutela nahikoa diru bizitzen jarraitzeko beharrezkoak dituzten elikagaiak eskuratzeko. Are gutxiago, elikagai osasungarriak eskuratzeko eta horrenbestez bestelako nutrizio-arazoak ekiditeko (gehiegizko pisua edota proteinen gabeziak, esaterako, edota haurren pisu txikiegia). Sakoneko arazo hori konpontzeko, baina, ez da nahikoa nekazaritzako inbertsioak egitea nutrizio-gaiak kontuan izanda, balio-katean galtzen den produktuen kopurua gutxitzea eta kate osoaren efizientzia hobetzea bakarrik, ez bada merkataritza-, gastu- eta inbertsiopolitika orokorretan aldaketarik egiten. Hau da, ez da egongo gosea desagerrarazteko irtenbide eraginkorrik ez bazaie merkatu-kontzentrazioari eta liberalizazio asimetrikoari aurre egiten.

Arlo horietarako proposamenak hutsaren hurrengoa dira, nazioartean nagusi diren potentziek jokabidea aldatzea eta munduko elikadura-sistema sakon eraldatzea eskatzen duelako. Baina hori egungo ekonomia-eredu merkatuzale eta liberalizatzailearen kontra joatea da, eta hori ez dago konpromisoen artean, ez garapen iraunkorrerako helburuetan, ezta beste inon ere. Jokabide horren adierazpide garbia dugu Munduko Merkataritza Erakundeak elikadura-segurtasuna bermatzeko izakinak biltegitratzeko jarritako oztopoak Hegoaldeko herrialdeei.

Izan ere, 2007-2008ko elikadura-krisiaren ondoren, Indiako gobernua herrialdeko nekazariei uzta prezio administratuetan (nazioartekoa baino gairaiagoetan) erosten hasi zen, elikagai nahikoa edukitzeko populazioaren beharrei aurre egiteko eta herrialdeko nekazarien sarrerak bermatzeko, nekazari txikiak baitira Indiako populazio pobre eta gosetuaren zati esanguratsu bat. Baina, 2012an, AEBk India salatu zuen MME-n, prezioen sostengu-politika hori tarteko, nazioarteko merkatuetan distortsioak sortzeagatik. Salaketa horren aurrean, Indiak eta G-33ko Hegoaldeko herrialdeek elikadura-ziurtasuna bermatzeko helburuzko gisa horretako planak, NAaren murrizpen- eta debeku-esparrutik ateratzea eskatu zuten. Baina Iparraldeko taldeak eta Cairns taldeko herrialdeek kontra egin zuten, eta ez zen eskaera onartu. Trukean, Bake Klausula onartu zen, gaiaren inguruan behin betiko erabakia hartu bitartean. Haren arabera, gisa horretako programak MMEri

jakinarazi behar zaizkio, eta, hori betez gero, inongo herrialdek ez ditu berriz salatuko. Behin betiko akordioa eta Bake Klausularen bukaera 2015eko Nairobiko Konferentziarako aurreikusi ziren. Igaro da Nairobikoa, baita 2017koa Buenos Airesen ere, eta ez da halakorik gertatu. Eta ez da halako ezer espero 2021eko Genevakoan ere. Hau da, herrialde boteretsuenak merkataritza-gaien arloan aurretik jartzen ari dira prezioen inguruko liberalizazio-politikak, eta nazioarteko merkatuak eskuratzea elikadurarako esku-bidea bermatzea baino, bizitzak jokoan izanda ere! [20].

## 6. ONDORIOAK

Kontuan izanda egun dugun gosearen hedapen zabala, 760 milioi pertsonatik gorakoa, eta 2014tik hona haren eraginak joera gorakorra duela mundu mailan, 2030. urtean gosea bukatzeko garapen iraunkorrerako bigarren helburua gauzatzea ez da egingarria izango indarrean dauden ekonomia-politika liberalek bere horretan badiraute.

Gosearen eragin zabala munduan ekoizten diren elikagai kopuru nahikoak merkatuan ezin eskuratzegatik gertatzen da nagusiki. Erabat salgai huts bihurtu diren elikagaiak eskuratzeko nahikoa diru ez izatearen ondorio da; errentaren banaketan dagoen desberdintasunaren eta haren ondoriozko pobreziaren hedapen zabalaren emaitza larria, alegia.

Izan ere, 1980ko hamarkadatik aurrera, liberalizazio-neurriek modu zuzenean kaltetu dute pobreek elikagaiak eskuragarri izatea, baita Hegoaldeko nekazari txikien bizimodua ere. Halako politikak tokiko elikagaiak ekoizteko aukerak eta gaitasunak mugatu dituzte, eta, ondorioz, herrialdeetako elikadura-mendekotasuna areagotu, eta pobrezia, gosea eta elikadura-zirgabetasuna hedatu dituzte mundu mailan.

Elikadura-arazoei aurre egiteko eta munduko nekazari txikien bizimodua duina izateko, beharrezkoa da egun indarrean diren neurri merkatuzaleak zuzentzea, eta nekazariari eta elikagaiei beren funtzio soziala itzultzea, gizakion elikagaien beharrak asetzeari dagokionez. Hau da, elikagaien ekoizleek izan behar dute elikadurarako eskubidea gauzatzeko ezinbesteko eragileak, eta ez egun lan horretan nagusitu diren enpresa agroindustrial handiak. Gisa berean, munduko nekazariak ezin dira izan industriaren lehengai hornitzaile hutsak, ezta elikagaiak mozkinerako bitarteko soil ere.

Bide horretan, ezinbestekoa da egungo merkataritza-neurri liberal asimetrikoak bertan behera uztea eta herrialdeen elikadura-burujabetzarako eskubidea onartzea. Hau da, herrialde guztiek, Hegoaldekoek barne, ahalmena izatea erabaki guztiak hartzeko bertako elikadura beharren asetzeari bermatzeko, kanpoko lehia desleiala eta arau inposatuak baztertuz. Herrialdeetako botere publikoek ahalmena izan behar dute elikagaien merkatua

babesteko, eta produkzioaren, biltegiatzearen eta banaketaren inguruko neurriak hartzeko. Tokiko nekazaritza-jarduera sustatu behar da, populazio osoaren elikadura-beharrak asetzeari begira, betiere agroekologian oinarrituz eta nekazaritza iraunkorraren bidez, agroindustriaren eredu intentsibo merkatuzalea alboratuz.

Baina, aurrez esan dugun bezala, 2030 Agendak ez du zuzendu 1980ko hamarkadatik datorren ekonomia-politikaren joera liberalizatailea. Horrela, ezinezkoa da sustatzea gizateriaren beharrak asetzea bilatuko duen elikagaien ekoizpen-eredu iraunkor bat mundu mailan. 2030 Agendaren barruan nazioarteko erakundeetatik —eta bereziki FAOtik— proposatzen diren aldaketa txikiak baino ez baditugu martxan jartzen, ezinezkoa izango da gosea amaitzea eta, beraz, agendako bigarren helburuan hartutako konpromisoa betetzea.

## **BIBLIOGRAFIA**

- [1] DUBOIS A. 2001. *Garapenaren finantzaioa. Fluxu pribatuak eta Garapenerako Laguntza Ofiziala*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz.
- [2] MENDIA I. 2000. «FAO Organización de la Naciones Unidas para Agricultura y la Alimentación». PEREZ DE ARMIÑO K. *Diccionario de ayuda humanitaria y cooperación al desarrollo*. Hegoa. Icaria. Bilbo.
- [3] FAO, IFAD, UNICEF, WFP eta WHO. 2020. *The State of Food Security and Nutrition in the World 2020. Transforming food systems for food security, improved nutrition and affordable healthy diets for all*. Erroma. FAO. <https://doi.org/10.4060/cb4474en>
- [4] LABAIEN I ETA GUTIERREZ J. 2017. «Garapenerako lankidetzeta eta bere bilakaera». *Hegoak zabalduz*, 4. 1 lib., 27.
- [5] TELLERIA J. 2030. «Agendaren hizki txikia». *Galde* 27, negua/2020.
- [6] GONZALEZ C. 2002. «Instituzionalizing in equality: the WTO, Agriculture and the Developing Countries». *Columbian journal of Environmental law*, 27. lib., 433-65.
- [7] NBE. 2015. *Transforming our world: the 2030 agenda for sustainable development A//RES/70/1*. UNESCO Etxeak argitaratuko euskarazko bertsioa.
- [8] ARESKURRINAGA E., BEGIRISTAIN M. ETA MALAGON E. 2019. «Elikadura-sistemak: Elikadura Burujabetzaren eta Agroekologiaren estrategia askatzaileak». *Hegoak Zabalduz*, 10, 1. lib., 30.
- [9] ARESKURRINAGA E. 2016. «La liberalización del comercio agrícola y textil en la OMC. Efectos en los Países del Sur». *Revista de Economía Crítica*, 22, bigarren hiruhilekoa, 65-85.
- [10] GRAIN. 2008. *Se adueñan de la tierra. El nuevo acaparamiento agrario. Informe GRAIN octubre*.

- [11] GRAIN. 2016. El acaparamiento global de tierras sigue creciendo y siendo malo. GRAIN A contrapelo. Azaroa.
- [12] DELOITTE 2018. *Global Powers of Retailing 2018. Transformative change, reinvigorated commerce*. <https://www2.deloitte.com/content/dam/Deloitte/global/Documents/consumer-industrial-products/cip-2018-global-powers-retailing.pdf> . Accessed on September 29th.
- [13] DELOITTE. 2020. Global Powers of Retailing 2020. <https://www2.deloitte.com/global/en/pages/consumer-business/articles/global-powers-of-retailing.html>. Accessed on September 29th.
- [14] MURPHY, S. 2015. «Food security and international trade: Risk, trust and rules». *Canadian Food Studies-La Revue canadienne des études sur l'alimentation*, 2. lib., 2. zk.
- [15] FAO. 2015. *El estado de los mercados de productos básicos agrícolas 2015-16. Comercio y seguridad alimentaria: lograr un mayor equilibrio entre las prioridades nacionales y el bien colectivo*. FAO. Erroma.
- [16] FAO. 2011 *Why Africa has become a net food importer? Explaining Africa agricultural and food trade deficits*. Trade and Market Division. FAO. Erroma.
- [17] MURPHY S, BURCH D. eta CLAPP, J. 2012. *Cereal Secrets. The world's largest grain traders and global agriculture*. Oxfam Research Reports. OXFAM. Londres.
- [18] FAO, IFAD, UNICEF, WFP eta WHO. 2021. *The State of Food Security and Nutrition in the World 2021. Transforming food systems for food security, improved nutrition and affordable healthy diets for all*. FAO. Erroma. <https://doi.org/10.4060/cb4474en>
- [19] ZABALO P. 2013. «Las nuevas cifras del hambre de la FAO. Cambio radical en la visión sobre la evolución de la subnutrición». *Boletín electrónico de Hegoa*, 35. 1. lib., 9.
- [20] WTO 2014. The Bali decision on stockholding for food security in developing countries. [https://www.wto.org/english/tratop\\_e/agric\\_e/factsheet\\_agng\\_e.htm](https://www.wto.org/english/tratop_e/agric_e/factsheet_agng_e.htm)